

Egilea:

IGONE ETXEBARRIA

AURKEZPENA

Sorne Unzueta Euskal Herriko XX. mendearen hasierako mugimendu abertzalearen erakusgarri bete-betekoa dugu. Irakasle, *Emakume Abertzale Batzako*a, idazle eta politikako hizlari izan zen. Hori dela eta, bizitza gogorra suertatu zaio, baina beti atera da aurrera, berak behin baino gehiagotan esaten duen esaldia betez: «Una brisa me conmueve y el huracán no me abate» (Haize gozo batek hunkitu egiten nau eta haize-erauntsiak ez nau botatzen). Esaldi horrek ondo ere ondo erakusten du Sorneren izaera, indarrak eta sentiberatasunak bat eginda.



Sorne Unzueta *Utarsus* (1900).

2



Rigoitolean, 1922an, Sorne ezkerrean, beste bi irakaslerekin. Erdikoa Maria Rementeria da.

BIZITZAKO LEHENENGO ZERTZELADAK

Sorne bilbotarra dugu jaiotzez, Abandon sortu zen mundura 1900eko azaroaren 27an. Gurasoak Igorre eta Gernikakoak zituen, baina Bilbon hazitakoak biok eta etxean erdaraz berba egiten zuten. Abando izan zen euskal abertzaletasunaren sorgunea ere eta Sorne, Sabino Arana bezala, San Bizente elizan bataiatu zuten.

«Sorne» esan dugu orain arte, baina hori ez da erabili duen izen bakarra. Etxean «Concha» esaten zioten, «Concepción» zelako berez. Baina Sornek, abertzaletasuna barru-barruraino sartuta zeukanez,

euskalduna izateko euskaraduna izatea beharrezko jotzen zuen. Hori dela-eta, gaztetan, hamasei bat urterekin, euskara ikasi zuen eta ordutik aurrera hasi zen «Sorne» izena erabiltzen, hau da, «Concepción» euskaraz. Izen horrek gainera, familian jarraipena izan du, alaba gazteena ere Sorne da-eta, baita horren alaba bat ere.

Beste izen batzuk ere izan ditu, «Primitiva» ageri da nortasun agirian eta gainerako agiri ofizialetan, eta inoiz «Sabina» ere bai. Bibliografia ikustean, auzo-eskoletan ibilitako andereñoen gainekoan batez ere, nekez agertzen da «Sorne», hor «Primitiva» edo «Concepción» aurkituko ditugu.

3

Sorne eta Gregorioren ezkontza, 1925, Bilbo, Abando, San Bizente eliza.



IRAKASLE

Lehenengo ikasketak Atxuriko eskolan egin zituen eta 11 urterekin eskolako sari nagusia irabazi zuen, ikasle zaharragoak ere tartean izan arren. Gero irakaslerako ikasi zuen lau urtez 1913an Solokoetxen egin zuten Escuela Normal Superior de Maestras eskolan. 14 urterekin hasi zen, baina legeak ez zuen 15 urtetik beherako ikaslerik onartzen eta urte bat entzule eman behar izan zuen. Ahizpa, Basilisa ere, maistra izan zen.

1920an Bizkaiko Foru Aldundiak auzo-eskolak zabaltzea erabaki zuen. Izan ere, 1919an Gallano Mozioa onartu zuen herria eskolatzeko eta lekuan-lekuan nagusi zen hizkuntzan gainera. Beraz, lehenengo Foru Aldundiak udal guztietara galdeketa bat bialdu zuen, euskaraz eta erdaraz, honako datuak eskatzeko: herriaren izena, biztanleak, eskola-errola, hizkuntza erabiliena, zenbat auzok behar zuten eskola, baserriko lanen garaia, beharrok zenbat irauten zuten, umeez beharrotan zenbat parte hartzen zuten, eta abar.



Eskolaumeak Isuskitzan, 1923 inguruan.

Eskola jartzeko, herri edo auzoek hiru baldintza bete behar zituzten: hamar lagun baino gehiagoko etxe-multzoak izan, etxeak eskolarik hurbilenekotik gutxienez kilometro batera egon eta auzoak edo udalak leku egokia jarri behar zuten.

Erantzun asko eta asko hartu zituzten eta Inspeksio Publikoko Batzordeak harrিতuta ikusi zuen zenbat herrik eta auzok zeukaten eskolaren premia.

Lehentasunak finkatuta, berrogeita hamar eskola eraikitzea erabaki zuten eta horko irakasle beharrak asetzeko

deialdia egin zuten, baldintza bi jarrita. Bata euskaraz ondo jantzita egotea zen, batez ere inguru euskaldunetara joateko. Bigarrenak zioen lanpostu guztietan, mailarik bereizi barik, hasteko, urtean hiru mila pezeta ordainduko zituztela.

Deialdiak erantzun ona izan zuen eta hortik sortu zen lehenengo irakasle taldea. Tartean zeuden Primitiva Unzueta, Juliana Azpeitia, Consuelo Gallastegi eta Eulalia Azcuenaga, batzuk aipatzearren. Hogeita bi emakume eta lau gizon guztira.

Lemoako eskolan, 1927an. Sornek Andone alaba dauka besoetan. Beste andereñoa Ramona Ibagutxi da.



6

Irakasle zereginean lehenengo Errigoitin egon zen Sorne Unzueta, Errigoitiolaeko eskolan, 1922an, eta Maria Rementeriarekin batera. Bitartean Fruizen bizi zen. Hor zegoela, ikasleen hainbat gurasorekin gorabeherak izan zituen haiek nahiago zutelako seme-alabek gaztelaniaz ikastea, gerorako hobia izango zutelakoan.

Handik Plentziara aldatu zen, Isuskitzara. Eskola horretan irakasle bakarra zen eta eskolan bertan

zegoen etxean bizi zen. Aldi lasaitzat gogoratzen du hori. Ondoren Gorlizen, Urezarantze eskolan egon zen, baina denbora gutxi.

1925ean Gregorio Errazti bilbotarrarekin ezkondu zen eta, orduan, Lemoara joan ziren. Senarrak Bilboko Aurrezki Kutxan behar egiten zuen eta Lemoatik trena zeukan egunero joan-etorria egiteko. Lemoan, lehenengo herrian bertan egon zen,



Eskolaumeekin Lemoan, 1926an.

Elizondon, baina gero, eskola hori eskola nazional bihurtzeko gogoia hartu zutenean, auzo batera, Arrañora bialdu zuten. Lemoan bizi zirela hiru seme-alaba izan zituzten: Andone, Jon Ander eta Iñaki, azkena jaiotzean hil zen.

Lemoako azken urteetan herritik oso urrun zegoen eta, horregatik, Bediara aldatu zen, Ugarteko eskolara.

Bediako oroitzapen oso ona dauka, batez ere Eulalia Azkuenaga eduki zuelako irakasle-lagun, hil arte adiskide on-ona izan zuena.

Eta Bediatik Berangora joan zen, Santa Ana eskolara, gerra hasi arte, 1934tik 1937ra. Berangon irakasle zela, Algortan bizi zen eta orduan jaio ziren beste alaba bi, Gotzontze eta Sorne.



Aberri Eguna, 1932ko martxoak 27. Egun horretarako Sornek egindako idatzia.

EMAKUME ABERTZALE BATZA

Sorne Unzueta *Emakume Abertzale Batza* elkartearen sortzaileetarikoa izan zen eta ardurako karguak bete zituen erakundearen barruan.

Emakume Abertzale Batza 1922an sortu zen EAJren barruan, Elias Gallastegik bultzatuta Irlandan zegoen antzeko erakundea eredu hartuta. Emakumeen elkarte honek helburu bat zeukan: gizonak politikan egiten zuten lanaren osagarri izatea, beti gizonen ondoan, aurretik jartzeko asmo barik. Elkarte honetan hainbat ekintza egiten zituzten: euskara, mekanografia, sukaldaritza, josten... irakatsi, ongintzako ekintzak, abertzaleen ospakizun eta agerraldietan parte hartu, gizarte-arazoetan lagundu, hitzaldiak eratu eta eman.

Emakumeen zeregina amatasunari oso lotuta zegoen. Haiek seme-alabei hezkuntza egokia eman behar zieten, oinarri sendo biren inguruan batez ere: fedea eta abertzaletasuna. Pentsamoldea da emakumeek tradizio eta ohiturei eutsi behar dietela baina politikatik kanpo, ohiko zereginak utzi barik eta gizonen lekua hartzeko helburu barik.

Emakume hauetako batzuk gizarte-eragileak izan ziren, batzuek orduko aldizkarietan hainbat idatzi zuten. Izan ere, orokorrean zereginen batean



«¡Itxartu euzko-alabea!» olerkia,
Euzkerea, 1931, irailak 15.

zebilena besteetan ere ibiltzen zen. Horietako bat dugu Sorne: idazle, hizlari, emakume, irakasle, eragile. Sornek data jakin bat mugarrizat dauka: 1932. Urte horretan emakumeei botoa emateko eskubidea onartu zieten. Orduan sozialisten eta komunisten artean, gizonak ez ezik emakumeak ere atera ziren emakumeei botoa eskatzera. Abertzaleek ezin zuten horretan atzean geratu eta haiek ere hasi ziren mitinetan parte hartzen.

Sorne hizlari sutsua omen zen, aldizkarietan egiten dizkioten aipamenetan agertzen denez. Hizlari esperientziatik oroitzapenik onena Bermeoko mitinak utzitakoa da. Beste hizlari batzuk ere bazeuden, bera baino adituagoak beharbada politikan eta ekonomian. Baina berak euskaraz berba egin zien bermeotarrei, eta txaloak amaiezinak izan ei ziren. Gero ere, herritik zihoala txaloka hartu zuen jendeak.



Sorne gaztetan, 1922 inguruan, Isuskitzan.

Orduko aldizkarietan aipamen bat baino gehiago ikusi dugu hark egindako hitzaldiei buruz. Gehienetan ikusten da jendeak txaloka eta bero-bero hartu zuela, Euskal Herriaren, hizkuntzaren eta historiaren berri egoki ematearren. Hona hemen aipamen horietako batzuk:

Getxo. La labor de Emakume Abertzale Batza de Ondarreta

(...) En ambas reuniones hizo uso de la palabra la entusiasta abertzale doña Sorne de Unzueta. Sus palabras fueron un canto a la mujer vasca patriota y un estímulo para que procuren fomentar en su corazón el aliento divino de la patria. Subrayó la trascendencia de estos momentos patrios, que requieren toda la labor de la emakume. Expuso con claridad los fines que ha de perseguir esta Asociación de Emakume Abertzale Batza y el mejor método de llevar a término sus aspiraciones.

(...) Las ya asociadas rinden un tributo de admiración pública a la señora doña Sorne de Unzueta por su

intenso trabajo en favor de la causa jelistá. Sus sabios consejos y estímulos han de fructificar ubérrimamente en este querido pueblo. Nuestras aspiraciones se concretan a que todas sientan la belleza del ideal patrio y la amen.

Una hermosa conferencia de doña Sorne de Unzueta

Emakume argi onek, bere itxeikizuna, euskera garbi ta ederrean oguzi eban. Eta euskereari jaokan garrantzia emonaz, beste gauza entzungarri askoren artean, egiaren zorrotzaz agerturiko arantzadun itzok oguzi ebazan: geure aberri-elea baztarrera jaurtita gaztelerea darabilan abertzalea; seme-alabai euskeraz irakasten arduratuten ez dan gurasoa, abertzaleen artean abertzaleena dala, ta sabindarren artean sabindarrena dala badino be, abertzale ona ezin izan leiteke, ezta sabindar sindoa be... Sabin ber-bera berbiztuko balitz, ba, ta bere ikasleen artean era orretako abertzaleak dagozala jakin, jakinazo izan dautsoen guztiori guzurra dala esango leuke, edo abertzale usteltzat artu ta zindoen artetik kenduta bazter baten imini.

Emen agertuten doguzan itzok Sorne eletari trebeak oguzi izan ebazan berberak ez badira be, arein guna ta onena, bardinak dira.

Sorne txalotua izan zan.

ERBESTEALDIA

Espainiako Gerra Zibila hastean, abertzaleentzat urte ilunak etorri ziren eta giro ilun-gogor horrek bete-betean harrapatu zuen Sorne eta haren familia osoa. Lau ume txiki hartuta, Asun ahizparekin Frantziara alde egin zuen 1937an «Goizeko Izarra» ontzian, Gobernuako kideen familiekin batera. Asko eskertu dio orduko Eusko Jaurlaritzari hain arin atera izana. Baina senarra Bilbon geratu zen eta

familia zatitu egin zen. Bordelera heldu ziren, bidaia zorabiatuta egin ostean. Handik Saint-Christaud eta Kanbora joan ziren. Nahiko bizimodu eskasa zeukaten, aurrera ateratzeko puntuginan jarduten zuen aginduz jertseak egiten eta sua egiteko errekatik hartzen zuten egurra, adibidez. Han bertan umeentzat eskola bat eratu zuten bera andereño zela, ordainik hartu gabe, noski.




Erbestean eskolan, Saint-Christaud (Garona Garaia) 1939. Bainu-etxea izandakoa gerran egokitu egin zuten.


Senarra lehenengotan Bilbon geratu zen eta gero Bartzelonara joan zen. Handik urte bira elkartu ziren Lourdesen. Baina berriro zatitu zen familia, izan ere, erbesteratuak izanik ezin zuten lanik egin eta ez zeukaten modu nahikorik umeak aurrera ateratzeko, beraz, hiru seme-alaba zaharrak Bilboko familiarengana bidali zituzten.

Sorneren senarrak, beste erbesteratuen moduan, Frantziako gizartean inork egin gura ez zituen beharretan ibili behar izan zuen. Sornek berak ere, Euskal Herrian gaztelaniaren azpitik atera nahian euskararen alde hainbeste lan egin ondoren, Frantzian espainolezko eskolak eman zituen. Sasoi txar horretan jaio zen Xabier, 1942an, batek baino gehiagok haurdunaldia eteteko aholkua eman bazien ere.

11



Erresistentzian alderdi libretik okupatura mezuak isilpean igarotzen zituzten. Hau da mezu horietako bat.



Aberri Eguna, 1932ko martxoak 27: Begoñako elizaren ondoan ospakizuna.

12

Errazti senar-emazteak erresistentzian ibili ziren, Juan Ajuriagerrak hala eskatuta. Tartean zen Leizaola ere. Sorneren zeregina alderdi libretik alemanek okupaturako alderdira mezuak eroatea zen, eta hainbat kontu ditu ordutik, tren joan-etorrietan polizia alemanekin igarotako estualdiak zirela eta, paparrean ezkutaturakoa aurkituko zioten beldurrez.

Gerra amaitu zenean aparteko ospakizuna egin zuten, txahal bat hil taldeko guztien artean jateko, nahiz eta jakin hori delitua zela eta heriotzarekin zigortzen zutela.

Gerraren ostean, Eusko Jaurlaritza Parisen jarri zen, Jose Antonio Agirre lehendakari zela eta hark eskatu zion Sorneren senarrari han bertan *Euzko Deyako* bulegoetan behar egiteko. Alaba zahar biak Parisen batu zitzaizkien, eta gerora, han geratu ziren gurasoak itzuli ondoren ere. Han egon ziren 1951 arte, harik eta, Espainiako gobernuak behartuta, Frantziako Gobernuak Euskal Gobernuaren ordezkari handik kenarazi zuen arte. Orduan beste leku batera aldatu ziren Parisen bertan, baina ez luzaroko.



Estatu Batuek Sorneri eta senarrari emandako agiriak Erresistentzian laguntzearen. Sorne gizontzat hartu zuten antza, *Monsieur* jarri zioten eta.

16 urteko erbestealdiaren ostean, 1953an Euskal Herrira itzuli ziren Gregorio senarra larri zegoelako eta hemen hil gura zuelako. Hala gertatu zen, azaroaren 20an etorri eta 25ean hil zen eta.

Erbestealdia, kanpokoa, amaitua zen, baina hona etorritakoan egoera latza suertatu zitzaion Sorne alargundu berriari. Lehenengotan ahizpen etxean bizi izan zen eta, diktadura garaia zenez gero, inguruan jende askok txarto hartu zuen abertzalea eta erregimenaren kontrakoa zelako.

Orduan ere kemena hartu eta bizimodua ateratzea lortu zuen. Berriro ere, bizitzak buelta asko egiten dituela erakutsiz, frantses irakasten jarri zen, kultura orokorrarekin batera.

1968tik aurrera Algortan bizi da, 2000. urtean ehun urte bete berri dituela, hurrengo gizaldian sartzeko prest. Hala, hiru gizaldi ukitzea lortuko du, amak esaten zion bezala.

13



Erresistentziako taldean emakume bakarra Sorne. Bere alboan senarra. Atzean, ezkerretik hirugarrena, txapelarekin Leizaola dago.

KULTUR GIROA

Aldi batean euskara irakaskuntzan sartzeko ahaleginean jardundako andereñoetako asko eta askok beste hainbat arlo eta ekintzatan ere bizi-bizi parte hartu zuten, abertzaletasunari lotuta batez ere. Eskoletan, gainera, ez antolakuntza eta administrazio lana, baina irakaskuntza arloa bera emakumeen esku zegoela esan daiteke. Aipatu ditugu *Emakume Abertzale Batza* eta erakunde horren inguruan eratzen zituzten ekintzak.

Beste alderdi bat egunkari eta aldizkarietan idazle agertzea dugu.

Espainiako Gerra Zibila hasi aurreko urteetan kultur arloan bizitasun handia egon zen Euskal Herrian. Horren erakusgarri asko daude, baina bi baino ez aipatzearren, hona: ordukoak dira euskal poesiako urre garaia osatu zuten olerkariak: Lauaxeta, Lizardi, Orixe; eta ikustekoa da zenbat aldizkari egin eta argitaratzen ziren, garaiko bitartekoak kontuan hartuta. Zerrenda luzea da, baina izenak emango ditugu, denak ez bada ere: *Euzkerea, Euskal Esnalea, Euskalerraren alde, Jaungoikozale, Euzkadi, Diario Vasco, Bizkaitarra, Argia, El Día, Euzko, Amayur, Jagi-Jagi, Arabarra, Gipuzkoarra, El Obrero Vasco, Aberri Eguna, Jaiki...*

Eduki, iraupen eta egituran oso ezberdinak diren arren, gerra osteko hainbat urtetako bapeza ikusita, harrigarri egiten da horiek guztiak egiteko besteko bizitasuna egotea gizartean.

Idazleen artean gehien-gehienak gizonetzkoak dira, baina andrazkoak ere badaude, gero oso ospetsu izan ez badira ere. Sarritan gaitza da jakiten egilea nor den, gehienetan goitizena darabiltelako. Hori dela eta, hainbat idatzi norenak diren argitu barik egon daiteke. Baina, horrez gainera, beste arazo bat ere badago. Aldi horretan aldizkarietan lantxoak argitaratu zituztenetako askok gero idazteari utzi zioten, beraz, emaitza, idatzitakoa bera, gutxi da idazle askoren kasuan, eta gainera, aldizkarietan galduta geratu da, libururik argitaratu ez dutelako.

Hala ere, ikerketari esker gero eta gehiago dakigu aldi horretako idazleei buruz, horren adibide dugu Sorneren kasua, izan ere, orain dela bost bat urtera arte Sorneren izena ez zen euskal literaturako liburuetan ageri, eta haren idatziak ezezagunak ziren. Aita Santi Onaindiak bai *Mila Euskal Olerki Eder* liburuan bai *Euskal Literatura* sailean aipatu zuen, baina haren gainean aparteko argibiderik eman gabe.



15

Gerra aurreko kultur bizitasunaren adierazgarri dira aldizkariak eta idazle berrientzat agerlekua.

16

Baina Sorne ez da emakume idazle bakarra izan, inondik ere. Beste izen batzuk gogoratu behar ditugu. Errose Bustintza *Mañariko* Kirikiñoren iloba, *Emakume Abertzale Batzako*a, ipuin eta olerkigilea eta herriko berrien emailea *Euzkadi* egunkarian; Julia Gabilondo *Maite*, Pantzeska Astibia *Onintze*, *Ete* Markinaldeko berriemailea, Julene Azpeitia, Katalina Elizegi, Maria Etxabe, Tene Mujika...

Emakumeok literaturan darabiltzaten gai, genero eta estiloetan, ezaugarri orokor batzuk ikusten dira.

Asko irakasleak dira eta, hori dela-eta, idatzi batzuk eskolan zegoen material urritasuna betetzeko irakurgaiak dira, hau da, umeentzat eginak. Alegia edo fabula moduan egindako batzuk ere horri lotuta daudelakoan gaude.

Gehien darabilten generoa poesia da, lan mugatua, ez luzea eta soltea. Beste genero batzuk ere erabiltzen dituzte: ipuina, narrazioa, antzerkia, baina idatzi laburrak dira orokorrean.

Horien barruan era guztietako gaiak aurkitu ditugu, baina oso nabarmena da amatasunaren gaia. Sarri-sarri agertzen da ama seme-alabekin, ama moduan zer sentitzen duen, seme-alabei zer irakatsi behar dieten eta haiengandik zenbateko poza eta zoriona hartzen duten.

Emakumeok pozik, harro daude emakume izateaz eta euren zeregina ere ama gisa eta familiaren barruan ikusten dute. Hala ere, herriarekin ardura handia daukate eta horrek bidea erakusten die, baina beti familia kutsuko zereginetan.

Ez daukate idazle kontzientziarik eta ez dute taldea osatzen. Idazten dutenak, orokorrean, beste hainbat arlotan ere fin dabilta eta idaztea helburu orokorrago baterako beste lan esparru bat da.



Eskolako atsedenaldiran umeek ezpata dantzak egiten zituzten. Hauek Bediako eskolakoak dira, 1934.



Sorne, 1997an.

SORNE IDAZLE

Sorne Unzueta idazlea dugu eta bete-betean dago giro horretan kokatuta. Izan ere, 1930ean hasi zen idazlanak aldizkarietan agertzen.

Lanok sinatzeko inoiz erabili du izena, baina gehien-gehienetan Utarsus ezizenarekin agertzen da. Lehenago ikusi dugu idazle ia batek ere ez duela benetako izenik erabiltzen, orduko moda omen zen. Baina horren azpian beste arrazoi hau ere ba omen zegoen: apaltasuna. Edozein lan edo edozein gauza egiten dela, ez da izan behar burua erakusteko edo besteengandik nabarmentzeko, beraz, idaztean ere berdin. Gainera, inoiz edo behin, idaztea herriarekin zeukaten konpromisoari erantzuteko egiten zituzten ekintzetako beste bat baino ez zen.

Utarsusen esanahia hau da: U (Unzueta) tar S (Sorne). «Sus» Sabino Aranak alfabetoa euskaraz zelan esan asmatzean, «s» letrari eman zion izena da. Sornek hori erabili du batez ere, baina inoiz edo behin «U'tar S» eta «U.T.S» ere erabili izan ditu, beti ere bide beretik.

Sorne 1930ean hasi zen argitaratzen, baina hau ez da gerra etortzean betiko isildu den idazlea,

gero ere idatzi izan du, hori bai, bizitzako gorabeheren arabera gehiago edo gutxiago.

Lehenengo aldia 1930 eta 1933 bitartekoa izango litzateke. Lau urteotan hainbat olerki eta, narrazioetatik, denak idatzi zituen orduko aldizkarietan: *Bizkaitarra*, *Euzkerea*, *Aberri-Eguna* eta *Jagi-Jagi*.


Horren ostean isilaldi luzea dator berriro idazten, edo argitaratzen behintzat, hasi arte. 1933tik 1977 arte olerki bat baino ez du argitaratu, behin *Euzko Gogoa* eta bigarrenez *Euzko-Deya* aldizkarian. 1977an hasita, ostera, 1990 arte *Zer* aldizkarian urtero-urtero argitaratu ditu idazlanak, aldi horretan denak olerkiak.





19

Sorneren olerkiak idazle handien ondoan, Eusebio Erkiaga *Endaitz* eta Estepan Urkiaga *Lauaxetarekin*.



Idatzi batzuk argitaratu barik eduki ditu, baina 1995ean Labayru lkastegiak, idazlan guztiok batu eta liburu batean agertu zituen *Idazlan guztiak* izenarekin. Ordutik hor daude jasota Utarsusek idatzitako guztiak, lehendik argitaratutakoak eta ordura arte inoiz kaleratu gabekoak, salbuespen batekin. Utarsusek nobela bat idatzi zuen Pariseko erbestealdiko garaian, *Me voy contigo*, eta hori orain arte ez da inoiz kaleratu, ezta liburuan ere.

SORNE OLERKARI

Sornek gehien olerkiak idatzi ditu, bai kopuruaren aldetik bai sormenari erreparatuz gero. Lan gehienak aldi bitan batu daitezke, gerra aurretik *Euzkerea* aldizkarian argitaratutakoak, hamabi, eta gerra ostean *Zer* aldizkarian agertutakoak, hogeita hamahiru.

Sorneren poesian era askotako gaiak eta edukiak aurkituko ditugu, baina ezer nagusitzekotan doinu lirikoa nabarmendu behar da.




Andra-gizonak, Sorne eta Gregorio.

Sorneren sorlanetan, bere bizitzaren gainerako arloetan bezala, aberria eta fedea, abertzaletasuna eta emakumeen zeregina arlo horretan sarri agertzen dira, era batera edo bestera. Hona «Gomutazokiak» poemaren amaiera:

Ibaia dago geldi. Bere barruan basea dauko, goien ur gardena, ta ganean, azalan, antzekura lez, dago ortzeko margoaz, bai margoztuta.

Ibaia lez gentzean, neure gogoa ipini gura neuke: barrenean, giza-maitetasunak, ahaztu ezinak izan arren, benetan basazkoak.

Eurak baino gorago, Aberrientzat maitetasuna, hauxe da, ur gardena. Baina gorago ondino, dan bikainena Jaungoikoarentzako maitetasuna.



21



Aldizkari biotan argitaratu ditu Sornek idatzi gehienak, *Euzkerea*-n gerra aurretik eta *Zer*-en 1977tik aurrera.

Bertso hauetan laburbilduta dago Sorneren pentsaera eta bizitzan izan duen jarreraren ardatza. Hiru maila bereizten ditu: lehenengo edo beherengoan giza maitasuna jarri du, gizon-emakumeen artekoa, ibaietako azpiko basa legez; horren gainean Aberriarenganako maitasuna, ibaiaren ur gardena; eta hirugarren, goren, Jaungoikoa, hori dago munduko gainerako guztiaren gaintetik argi eta garbi eta edozein egoeratan. Eta horrek denak ibiaren irudia osatzen du, joanean doa eta osotasuna sortzen du.

Bertsook Sorneren lanaren erakusgarri onak dira bai edukian bai forman. Eduki aldetik, bere jokabidearen gida direlako, eta formaren aldetik askotan egiten dituelako halako konparaketak.

Olerki asko eta askotan daude naturaren aipamenak gero azalduko duen ideia baten adierazpen gisa. Irudi horrek giroa eta sentimena adierazten ditu, eta gero, mezua bera, kontakizuna bera, giro eta sentimen horretan txertatuko du, askoz argiago, jakina.

Utarsus ez da hori egiten duen idazle bakarra, izan ere, Lizardik eta Loramendik, gerra aurreko poesiaren urrealdian, sarritan jokatzen zuten horrela, eta herri literaturan antzeko

joera erakusten duten konposizioak ezagunak ditugu.

Beste era bateko mezua ageri da «Itxartu, eusko alabea!» olerkian, emakumeek aberrian duten zereginari lotua. Izenburuak berak adierazten du olerkia emakumeei egindako deia dela. Hona txatal batzuk dei hori zertarako den argitzeko:

Ortzia garbi ta oztin
dakusku, sorkaldean
argi gorri biguntxua
zabalduten hasi da.
Itxartu, eusko alabea;
jagi, ba, emakumea!

(...) Eta zu ondino lo zagoz,
ene ahizta kutuna?
Ez zaitu ba, ondino itxartu
lanaren zarateak?
Itxartu eusko alabea,
Jagi ba, emakumea!

(...) Zeure odolaz hazitako
seme txiki politak,
sehaskan, lo samurkiro,
egiten dauan bitartean,
abestu olerki aberkoiak
eusko abesti gozoak.

Semearen bihotzean
txikia dan artean
erein Euskadirentzako
askatasunen nahia,
batera Jaungoikoaren
maitetasun deunagaz.



Sorne ama-alabak.

Hori da Sorneren ustez, eta *Emakume Abertzale Batzaren* ustez, emakumeen zeregina aberrigintzan. Olerki honetan, gainera, estilo aldetik, beste baliabide batzuk erabili ditu: harridurak, aditzak aginte eran, galderak, errepikapenak. Edukiari lotu-lotuta dago azala, gainerakoetan bezala, baina honetan ondoen doakion airea eman dio. Emaiza olerki indartsua, beroa, gartsua da, gaia ere halakoa da eta, deia argi eta garbi egitea.

Gainerakoan, sentimenduen mundua, afektibitatea, maitasuna, gozotasuna dira nagusi Utarsusen olerkietan. Hori adar bitan gauzatzen da batez ere. Alde batetik, natura, kanpoa, ingurua jasotzen du zentzu guztiak erabilia: koloreak, usainak, begiek batzen dutena, ukimena. Dena da sentsazio iturri eta bitarteko. Beste aldetik, idazlea emakumea izanik, amatasuna, ume txikien maitasun eta babes beharra eta amarentzat umeak dakarren gozotasun, eztitasuna oso garrantzitsuak dira.

Hori dena adierazteko, irudiak egiten ditu, ulertzeko errazak, baina mamia modu eder eta liriko batean esateko bidea ematen diotenak. Adibidez, lehen aipatu dugun ibaiarena, edo trenari «buztan balztun arra» esaten dionean. Horrez gainera, berbak, hiztegia, ondo aukeratuta erabiltzen ditu, eta oso aproposak dira sentimenduok adierazteko. Esaterako, egoera pozgarria eta baketsua adierazteko, *ortzia garbi ta oztin*, *argi gorri biguntxua*, *gabeko haizearen mosu leuna* eta antzeko irudiak darabiltza, gehienetan naturatik hartuta irudia egiteko aitzakia.

Gogoetari, barrura begiratzeari garrantzi handia ematen dio eta hainbat olerkitan ageri da. Horrekin batera, erlijioari lotutako gaiak

agertzen dira, dela kristau-jairen bat, dela gertakariren bat. Eta gainerakoan, edozer da olerkia egiteko aitzakia: norbaiti zorionak ematea, gertaera zehatzen bat, norbaitentzako eskaintza.

Olerkiak gehienetan lehenengo edo hirugarren pertsonan idatzita daude, baina inoiz edo behin aitita-ilobak jartzen ditu berbaz, arbasoak gazteei irakasten eta gazteak zaharrei galdezka ikasi nahian. Izan ere, Euskadik bere historia dauka eta

atzera begiratu beharra dago aurrera begira zer egin ondo jakiteko.

Olerkien neurriari begiraturaz gero, gehien batean bertso molde lotuak darabiltza, hau da, testua estrofatan zatituta dago eta estrofa normalen berdina dira, neurri eta errimaz. Idazlea ez da errimarekin itsutu, baina beti dago antzeko soinua, hoskidetasuna. Hala ere, batzuetan egitura berdintsua apurtzeko, tarteko bertso sorta laburragoak edo ezberdinak jartzen ditu.



Andra-gizonak lau seme-alabekin: Andone, Jon Ander, Gotzontze eta Sornetxo. Azkena mutila izan zen, Xabier, eta Lourdesen bizi zirela jaio zen.

PROSA IDAZLEA

Prosaren barruan, eta sormenari lotuta, Utarsusek poesian baino gutxiago idatzi du eta ez dena genero berean. Lehenengo eta behin alegia antzera idatzitakoak aipatuko ditugu. Halakoak dira «Txoriya kayolan» eta «Otxua ta txakurra» adibidez. Alegia XIX. mendean zabal-zabal ibili zen eta, Euskal Herrian, eskolako irakasle eta inspektoreek idatzi edo itzuli zituzten halako lanak batez ere. Utarsusek bide horretara jotzen du behin baino gehiagotan animalien gorabeheren bitartez beste era bateko eduki edo mezua adierazteko, generoak berak ematen duen kutsu didaktikoarekin hornituta.



Sorne ume birekin.

Beste idatzi batzuk narrazioak dira, «Barri pozgarriya» eta «Bermeo» liburuan agertu arte argitaratugabeak adibidez.

Halako idazlanetan mezuak garrantzi handiagoa hartzen du idatzi biribila eta estiloa lantzeak baino. Arinak dira irakurtzeko, biziak, elkarrizketa askorekin.



Idazlan guztiak liburua.

ARTIKULUAK ETA NOBELA

Sornek aldizkarietan idatzitakoen artean, iritzi-artikuluak ere badaude. Halakoak, aurrekoetan ez bezala, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daude. Artikuluok gerra aurrekoak dira denak, eta gizarte gaiak darabiltza batez ere berriro ere. Euskal izaera, euskara eta hizkuntzaren egoera irakaskuntzan, Aberri Eguneko adierazpena, gazteen eta ikasleen gorazarrea aipatuko ditugu denen laburpen gisa.

Zeregin hori irakasle eta gizarte-eragile izatearekin lotuta dago, azken batean arlo edo modu ezberdinetan lan bera egiteko bideak dira.

Halako batean Utarsus ezizena ezagutu ez eta, batek erantzun zion «Para el patriota Utarsus» izeneko artikuluan, gizonezkoztat hartuta. Ez zen sarri gertatuko, beharbada, emakumeak halako zereginetan ikustea.

Sornek nobela bat idatzi du eta hori da haren lanetatik oraingoz argitaratu gabe dagoen bakarra. *Me voy contigo* dauka izena eta familia euskaldun baten erbestealdia Frantzian azaltzen du. Familia horretan gazte bat dago, eta horren gorabeherak kontatzen dira batez ere nobelan, etxean, lagunekin eta, batez ere, barruko gogoetak

hartzen du lekurik handiena. Gazte horrek Jainkoaren deia entzun du eta hari jarraituko dion ala ez erabaki behar du.



Eiffel dorrearen aurrean, Sorne eta Xabier seme-alaba gazteekin, 1946 inguruan. Gizona Agustin Egia da, Sorneren lehengusua, Erresuma Batuko RAFeko kide zena.

EDERZALEA

Sorneren idatziak irakurri besterik ez dago konturatzeko zelan eta zenbat erreparatzen dien xehetasun guztiei. Eguneroko gauzak, inguruan ditugun leku eta giroak, inpresio eta sentimenak sentsibilitate handiz jasotzen ditu. Gauza txikietan, egunerokoetan, keinuetan ikusten du edertasuna eta edertasun horrek berari eragiten dion sentimena erakutsi, besteei adierazi behar die berak sentitutako moduan.

Ikasleekin eta seme-alabekin erakusten duen gozotasun eta maitasuna adierazgarriak dira. Baita olerkietan egiten dituen deskribapenak ere.

Ederzaletasunaren beste adierazpide bat pintura da. Sornek hainbat margo egin ditu, erretratuak, paisaiak, motibo jakinak. Izan ere, 75 urte zituela, posta bidezko ikastaro bat egin zuen margotzen ikasteko. Halako lanak sinatzeko, Utarsus barik «Untz» darabil, ikusten denez, hari beretik sortutako izena hau ere.

27



Iluntze bat, Sornek berak margotuta.

OMENALDIA

Orain arte esandakoa ikusita, argi dago Sorne Unzuetari omenaldi bat eta gehiago egiteko beste arrazoi daudela. Hala iritzi zion Labayru Ikastegiko Derioko Udako Ikastaroak eta 1995eko udako ikastaroan omenaldia egin zion. Alde batetik bera omentzea zen helburua, eta bestetik, bere bitartez, aldi berean, isilpean hainbat urtetan eta hainbat arlotan euskal hizkuntza eta herriaren alde lan egin dutenak ere omentzea.

Omenaldiko ekitaldian, Sorneren ilobak, Miren Esturok, haren bizitzaren berri eman zuen. Sabin Barruetabeñak

auzo-eskolak eta euskarazko irakaskuntzaren gorabeherak batu zituen, eta Igone Etxebarriak Sorneren idazle alderdia aztertu zuen.

Oso hunkigarria izan zen, auzo-eskoletan ikasle izandako batzuk, ordutik inoiz ikusi gabeak, orduan berriro elkartu eta hirurogei urte lehenagoko oroitzapenak ekarri zituzten gogora, orduan ume-andereño zirenak hainbat urte gehiagorekin, eta bizitzak hara eta hona erabili ondoren elkartuta.

Omenaldi horren emaitza gisa, Labayru Ikastegiak berak *Idazlan guztiak* izeneko liburuan Utarsusen idatziak eta ekitaldi horretako hitzaldiak argitaratu zituen, geroko haren zantzua argi eta eskura egon dadin, eta ez ordura arte bezala, ezkutuan eta isilik.



Labayru Ikastegiak Derion 1995eko uztailan egindako omenaldian, Sorne erdian. Ondoa Sabin Barruetabeña alde batera eta bestera Miren Esturo iloba eta Igone Etxebarria.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Sorne Unzueta eta familia*
- *Labayru Ikastegia*
- *Joseba Olalde argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1626-3 (Obra osoa)
84-457-1627-1

L.G.: BI-3034-00